

GRAL:

Ikaskuntza-zerbitzua eta eskola inklusiboa

Egilea: Bengoa Rubio, Anne

Tutorea: López Vélez, Ana Luisa

2017/2018

Aurkibidea

Laburpena	1
Resumen	1
Sarrera	2
1- Marko teorikoa	3
1.1-Eskola inklusiboa	3
1.1.1- Hezkuntza inklusiboa vs hezkuntza integratzailea	3
1.1.2-Eskola inklusiboaren garapena	4
1.1.3-Ikasgela inklusiboak	7
1.2-Ikaskuntza-zerbitzua	9
1.2.1- Zer da ikaskuntza-zerbitzua	9
1.2.2- Ikaskuntza-zerbitzuaren egituraketa	10
1.2.3- Zer ez da ikaskuntza-zerbitzua?	10
1.2.4- Ikaskuntza-zerbitzuaren oinarriko baldintzak	11
1.2.5- Ikaskuntza-zerbitzuaren egitura	12
1.2.6- Ikaskuntza-zerbitzuaren onurak	14
2- Testuingurua	15
3- Ikaskuntza-zerbitzuaren prozesua	16
4- Lortutako emaitzak	18
4.1- Familien inkestaren emaitzak	18
4.2- Ikasleen inkestaren emaitzak	23
4.3- Irakasleen inkestaren emaitzak	28
5- Hausnarketa	36
5.1-Lortutako emaitzak	36
5.2-Ikaskuntza-zerbitzua	37
6- Ondorioak	39
7- Bibliografia	41
8- Eranskinak	43
8.1-Galdeketak	44
8.1.1- Irakasleen galdeketak	44
8.1.2- Familien galdeketak	48
8.1.3- Ikasleen galdeketak	49
8.2- Emaitzen grafikoak	52
8.2.1- Irakasleen emaitzen grafikoak	52
8.2.2- Familien emaitzen grafikoak	65
8.2.3- Ikasleen emaitzen grafikoak	70

Laburpena

Gradu amaierako lan honen xede nagusia Gasteizko ikastetxe batean inklusioarekin lotuta aurrera eramán den ikaskuntza-zerbitzuaren berri ematea izango da jarraitutako prozesua eta lortutako emaitzak adieran utziz.

Horretarako, lehenik eta behin, inklusioa zer den, bere bilakaera eta bere ezaugarri nagusiak zeintzuk diren aztertuko da, autore ezberdinek haien lanetan aipatutako ideietan oinarrituz. Modu berdinean, ikaskuntza-zerbitzuaren inguruko informazioa emango da gaian adituak diren autoreen ideiak aipatuz. Jarraian, ikaskuntza-zerbitzua aurrera eramango den ikastetxearen ezaugarriak aurkeztuko dira eta ondoren, ikaskuntza-zerbitzuan erabili den metodologia zein izan den modu zehatzean azalduko da. Amaitzeko, ikastetxeko ikasle, irakasle eta familiei egindako galdeketetan lortutako emaitzak eta ondorioak aurkeztuko dira.

Lan honen bitartez, eskola inklusiboa eta ikaskuntza-zerbitzuaren nondik norakoa ezagutzeaz gain, ikastetxe batean aurrera eramán den zerbitzu baten berri emango da prozesu osoa azalduz eta lortutako emaitzak eta ondorioak adieran utziz.

Resumen

El objetivo principal de este trabajo de fin de grado es dar a conocer el aprendizaje y servicio solidario relacionado con la inclusión que se ha llevado a cabo en un centro educativo de Vitoria-Gasteiz.

Para ello, en primer lugar, se definirá la inclusión teniendo en cuenta las investigaciones de distintos autores, además se darán a conocer sus principales características y su desarrollo a lo largo de los años. De la misma forma, basándose en ideas de autores expertos, se dará información sobre el aprendizaje y servicio solidario. Posteriormente, se informará sobre las características principales del centro en el que se ha realizado el aprendizaje y servicio solidario. Seguidamente, se dará información detallada de la metodología que se ha utilizado a lo largo de todo el proceso. Para finalizar, se presentarán los resultados de los cuestionarios que se han realizado al alumnado, los docentes y las familias del centro para poder llevar a cabo la investigación y sacar conclusiones.

A través de este trabajo, además de dar a conocer la escuela inclusiva y el aprendizaje y servicio solidario también se analizará el servicio realizado en un centro educativo explicando todo el proceso realizado y analizando los resultados obtenidos.

Sarrera

Eskola inklusiboa eta ikaskuntza-zerbitzuaren gaia aukeratzearen arrazoiak anitzak izan dira. Alde batetik, inklusioaren gaia azken urteetan hedabideetan asko entzuten den gai bat izateaz gain, asko interesatzen zaidan gaia da. Gai honen inguruan graduan zehar hainbat alderdi jorratu ditugu baina nire ustez ideia pilo airean geratu dira. Hori dela eta, lan hau inklusioaren inguruan burutzea oso aukera aproposa iruditu zitzaidan gaian sakondu ahal izateko eta nire jakintzak areagotzeko.

Bestetik, ikaskuntza-zerbitzua dago, gai hau niretzat guztiz ezezaguna zen eta metodologia berritzaile honen inguruan informazioa jasotzen joan nintzen heinean interesgarria eta erakargarria iruditu zitzaidan. Ondorioz, niretzat berriak izango ziren jakintza asko ikasteko aukera ikusi nuen eta proiektu honetan murgiltzea erabaki nuen inolako zalantzarik gabe. Aldi berean, etorkizunari begira lan honen bidez ikasitako guztia oso baliagarria suertatuko zaidalakoan nago.

Argi dago oraindik gure gizartea eta batez ere, gure eskolak eraldatzeko eta inklusioa modu natural batez lantzen den alderdi bat bezala ikusteko bide handia geratzen dela. Hori dela eta, lan honetan gai horren inguruko informazioa eskainiko da ikaskuntza-zerbitzuaren nondik norakoa lantzen den bitartean eta aurrera eramandako proiektuaren berri ematen den bitartean.

Hau lortzeko, bi gaiei buruzko bilaketa bibliografikoa burutuko da. Era berean, ikaskuntza-zerbitzua aurrera eramango den ikastetxearen inguruko informazioa aztertuko da eta bertan ikerketa aurrera eramateko erabili den metodologia (kuantitatiboa, inkesten bidez) eta jarraitutako prozedura nolakoak izan diren azalduko da. Jarraian, ikasleei, hezitzaileei eta familiei luzatutako inkesten emaitzak banan-banan aztertuko dira eta azkenik, lan osoa aurrera eraman eta gero egindako hausnarketa eta ateratako ondorioak adieran utziko dira.

1- Marko teorikoa

1.1- Eskola inklusiboa

1.1.1- Hezkuntza inklusiboa vs hezkuntza integratzailea

Azken urteetan integrazioa hitzaren bilakaera ematen ari da eta gizartea pixkanaka inklusiora abiatzen hasi da. Gutxinaka lortzen ari garen inklusioak ez du arreta jartzen integratzen ari den haurrerean, testuinguruan baizik. Modu honetan, ikastetxearen esku hartzeak prest egon beharko du bertan dauden ikasle guztien beharrei modu egokian aurre egitera (Escribano eta Martinez, 2013). Era berean, eskola inklusiboaren garapena hezkuntza hobekuntzaren eta eraginkortasunaren aldeko mugimendu bat bezala ulertu behar da (Arnaiz, 2012).

Honetaz gain, inklusioaren eta integrazioaren arteko ezberdintasunak anitzak dira. Alde batetik, integrazioak hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleengan arreta jartzen duen bitartean, inklusioa ikasle guztiei zuzenduta dago, heterogeneitatea alderdi normal bat bezala ulertzen duelarik. Bestetik, integrazioan oinarritutako hezkuntzan ikasleen ezberdintasunei aurre egiteko Curriculumaren moldaketan oinarritzen da eta hezkuntza inklusiboak berriz, guztiontzako komuna den Curriculum baten alde egiten du. Curriculum honetan helburua ez da ikasle bakoitza gai ezberdin bat ikastea, ikasteko modu ezberdinak erabiltzea baizik, ikasle bakoitzaren beharrei arreta jarritz. Laburbilduz, esan beharra dago, inklusioaren fokua integrazioarena baino askoz handiagoa dela, azkeneko hau hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleengan soilik jartzen duelako arreta, inklusioak hezkuntzan dauden ikasle guztiengan arreta jartzen duen bitartean (Blanco, 2006).

UNESCO-ren (2005) hitzetan, hezkuntza inklusiboaren asmoa ikasleek eta irakasleek dibertsitatearen aurrean eroso sentitzea da. Era berean, beste helburuetako bat dibertsitate hori hezkuntza aberasteko alderdi bat bezala ikustea izango da, ikasle dibertsitatea arazo bat bezala hautematen ez den bitartean.

Dena den, hezkuntza inklusiboa aurrera eramatea ez da erraza izaten. Inklusioari hasiera emateko berrikuntza pedagogiko handiak beharrezkoak suertatzen dira eta ikastetxe guztietan ez dituzte baliabide egokiak aldaketa hauei aurre egiteko. Hori dela eta, planifikazioa aldeztu aurretik ondo prestatzea ezinbesteko baldintza bihurtzen da (Escribano eta Martinez, 2013).

Honezkero, urritasunak dituzten pertsonen eskubideen alde borrokatzen duen komiteak hezkuntza inklusiboa garatzerakoan ezaugarri hauek kontuan hartuz ulertua beharko dela aldarrikatzen dute (UN, 2006 in Echeita, 2016):

- Desgaitasuna duten eta ez duten pertsonen eskubideen berdintasuna.
- Hezkuntza duin bat eskuratzeko eta beste hainbat eskubideren alde egiteko baliabidea izatea.
- Hezkuntza osatzen duen langile guztien elkarlana eta konpromisoa hezkuntzarako eskubideak mugatzen duten barrera guztiak eliminatzeko.

Beraz, aldaketa eta hobekuntza ugari ezartzea beharrezkoa izango da ikasle guztietara hezkuntza moldatu ahal izateko. Gainera, hezkuntza inklusiboa ikasle guztiek duten eskubide bat bezala definitzen da; modu honetan, diskriminazio egoerak baztertuz (Echeita, 2016).

1.1.2- Eskola inklusiboaren garapena

Eskola inklusiboa oinarritzat hartzen dituen zimenduak alderdi hauetan jartzen dute atentzio berezia: ikasle guztiak pertsona gisa kontuan hartzea, pertsonak izaten, gauzak egiten, ikasten eta besteekin elkarbizitzen irakasten dien hezkuntza izatea eta harremanak errespetuz eta ekitatez sortzen laguntzen duen hezkuntza izatea (López-Vélez, 2018). Honetaz gain, Echeitaren (2016) aburuz, hezkuntza komunitate guztiek duten erronka nagusienetariko bat kalitatezko hezkuntza sistemak eraikitzea da. Hezkuntza sistema hauetan bikaintasuna ekitatearen esku joan beharko du bai ala bai.

Esan bezala, eskola inklusiboaren asmoetako bat kalitatezko hezkuntza lortzea da. Honekin batera, kalitate hori lortzeko bikaintasuna eta ekitatea ezinbesteko baldintzak bihurtzen dira (López-Vélez, 2018). Alde batetik, hezkuntzan bikaintasuna ikasle bakoitzaren garapenean mailarik altuena lortzean oinarritzen da; aldi berean, eskubide osoko hiritarrak bezala parte hartzeko aukera eskaintzen zaien bitartean (López-Vélez, 2018).

Bestetik, ekitaterik gabeko hezkuntza bat ez da inoiz kalitatezkoa izatera ailegatuko (Marchesi eta Martín 2014 in López-Vélez, 2018). Hezkuntza inklusiboaren helmuga ikasle guztien garapen mailarik altuena bilatzea eta aurkitzea da, bakoitzaren ezaugarri indibidualak alde batera uzten diren bitartean. Beraz, ekitate honek ez du soilik ikaslea

eta bere ezaugarri pertsonalak kontuan hartzen, bizitokia edo bere ikaskuntza garatzen duen ikastetxearen ezaugarriak ere kontuan hartzen dira (López-Vélez, 2018).

Hezkuntza ezagutzen, egiten, elkarrekin bizitzen eta izaten ikastera bultzatzen duen garapen soziala bezala defini daiteke. Lau oinarri hauek hezkuntza inklusiboaren xedek izan behar dira, baina betez ere elkarrekin bizitzen ikastearena nabarmenduko da (UNESCO, 1996 in López-Vélez, 2018). Honetaz gain, inklusiora ailegatu aurretik, herrialde guztiek hiru etapei aurre egin behar diote haien hezkuntzan inklusiora ailegatu arte (Tomasevsky 2002 in Blanco, 2006):

- Lehenengo etapan arrazoi ezberdinak direla medio baztertuak dauden haurrei hezkuntzarako eskubidea eskaintzean arreta jartzen du.
- Bigarrena berriz, integrazioaren alde egiten nabarmentzen da. Kasu honetan, integratzen diren ikasleak ikastola horretara egokitu behar dira eta ez alderantziz.
- Azkenik, hirugarren fasea dago, fase honetan inklusioaren alde egiten da eta ez dira ikasleak ikastetxera egokitu behar integrazioan gertatzen den moduan, ikastetxeak izaten dira ikasle hauen parte hartzea eta ikaskuntzak modu egokian gara daitezen egokitzen direnak.

Bestetik, Echeitaren (2016) hitzetan, hiru dimentsio nagusi daude gure ebaluazioak finkatzerako orduan: presentzia, parte hartzea eta ikaskuntza. Presentziari buruz hitz egiten denean ikasleak eskolatu diren ikastetxean jartzen da arreta; izan ere, ikastetxeek ikasle guztiei baldintza berdinak eskaini behar dizkie. Parte hartzeak berriz, ikasgai ezberdinetako saioetan besteekin batera ikastea eta kolaboratzea barnebiltzen ditu; honekin batera, parte hartzeak bakoitza denagatik errespetatua izatea kontuan edukitzen du. Azkenik, ikaskuntzaren dimentsioa dago, dimentsio honetan ikastetxeko ikasle guztiek, Curriculumeko alderdi ezberdinetan, errendimendu egokia edukitzea kontuan hartzen da; hau da, ikasle guztien arrakasta akademikoan atentzioa jartzen da. Ebaluaketak finkatzeko erabiltzen diren hiru urrats hauek Boothek eta Ainscowek (2015) sortutako “Index for inclusion” gidan jarraitzen diren berdinak dira.

Baina ikastetxeak ebaluatzeko dimentsioak finkatuak eta nahiko argi dauden arren, ikastetxe askotan inklusioa lortzeko bidean oztopoak topatzen dira (Booth eta Ainscow, 2015):

- Ideia eta balore inklusiboen alde ez egitea. Ondorioz, ikastetxearen parte diren partaide guztiak ez dira baloratuak sentituko.
- Eskola politiketan oztupoak agertzen dira balore inklusiboak modu zehatz batean ezarriak ez daudenean.
- Klasean burututako jardueretan edo eskolaz kanpoko ekintzetan askotan oztupo handiak egoten dira ez direlako diseinatzen ikasle guztien ahalmenetan oinarrituz.

Hiru dimentsio hauetan aldaketak modu komun batean eman beharko dira lortutako emaitzak egokiak izateko. Era berean, garrantzitsuena praktikak ikasle guztien presentzia, ikaskuntza eta parte hartzea bermatzen dutela baieztatzea izango da (Echeita, 2016).

Echeitaren (2016) aburuz, aurreko paragrafoetan aipatu den moduan, inklusioari buruz hitz egiten dugunean ez dugu bakarrik urritasun konkretu batzuk dituzten ikasleei buruz hitz egiten. Edozein ikasleri zuzendutako hezkuntza batez hitz egiten dugu, bere egoera soziala edo pertsonala edozein delarik. Aldi berean, oker egongo ginateke pentsatzen badugu, ikasle guztiak kontuan izan behar ditugunez, momentu batzuetan hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleengan ezin dugula gure arreta ezarri.

“Hezkuntza behar bereziak” terminoaren agerpenaren helburu nagusia eskola guztiek haien ikasle guztien hezkuntza prozesuaren ardura hartu behar dutela helaraztea izan da; norbanakoaren ezaugarri propioak edo haien mediku diagnostikoak albo batera uzten ziren bitartean. Hori dela eta, ikasle guztien beharretara modu egokian erantzuteko aukera izateko ikastetxeek antolakuntza egokia garatu behar dute haur guztiek beharrezko ikaskuntzak jaso dezaten (López-Vélez, 2018).

Azkeneko urteetan testuinguru asko inklusiboak bihurtu dira eta horren eragile handienetako bat “ikaskuntza diseinu unibertsala” mugimendua izan da. Mugimendu honek ikasle guztiengana ailegatzeko diren estrategiak erabiltzea sustatzen du, guztiengan itxaropen altuak mantentzen diren bitartean. Bere helburua irakasleek behar dituzten laguntzak eta gero eta barietate handiagoko ikasleen beharrak aurrera eramatea da ume hauen ikaskuntza prozesua ahalik eta onena izan dadin (Echeita, 2016 eta López-Vélez, 2018).

Ikuspuntu honen sustatzaileek irakasleei Curriculum askotariko, hedagarri eta malguago bat garatzeko laguntza eskaintzean jartzen dute arreta. Honekin batera, haien ideietako bat ikasteko ikasle ezberdinek izan dezaketen urritasun edo zailtasunak Curriculumean aurkitzen direla eta ez norbanakoarengan ikustarazten da. Izan ere, Curriculumak ez du ikasleen dibertsitatea bermatzen eta horrek ikasle askorengan oztopo handiak eraiki ditzake (Echeita, 2016).

“Ikaskuntza diseinu unibertsala” oinarritzat hartzen dituen printzipioak nahiko sinpleak dira. Kasu honetan, gizartearen gehiengoan pentsatu beharrean, hasiera batetik aukera gehiago eskaintzen dituen diseinu baten alde egiten du. Laburbilduz, mugimendu honek ikaskuntza prozesua guztientzako eskuragarria egitearen alde lan egiten du (Echeita, 2016). Hori dela eta irakasleen parte hartzea berebiziko garrantzia izango du inklusioaren bilakaeran.

1.1.3- Ikasgela inklusiboak

Aurretik aipatu den moduan, inklusioa ekitatean eta elkarbizitzaren sustapenean oinarritu egin behar da; horregatik, ikasgela inklusiboa ere aspektu horietan nabarmendu beharko da. Dena den, bost balore erabakigarri izaten dira nagusi kulturak, politikak eta praktika inklusiboak ezartzerako orduan, bai ikastetxean zein ikasgelaren barruan (López-Vélez, 2018):

- Berdintasuna: ez du adierazten pertsona guztiak berdinak direnik, guztiak balore berdinekin tratatu behar direla baizik.
- Parte hartzea: ikasgela barruko jarduerak parte hartzea sustatu behar dute eta parte hartze horrek ikaskuntzaren helburuetako bat izan beharko da.
- Dibertsitatearekiko errespetua: besteak direnagatik baloratzea, modu justu batez tratatzea eta komunitatean pertsona bakoitzaren kontribuzioa antzematen jakitea.
- Komunitatea: beste hainbat hiritarrekin bizi garela konturatzea eta laguntasuna eta afektuko adiskidetasuna beharrezkoa suertatzen dira.
- Jasangarritasuna: ikasleak hezi behar dira bizitza estilo egokiak sustatuz.

Baina balore hauek aurrera eraman ahal izateko beharrezkoa suertatzen da ikasgelaren barruan burutzen diren planteamenduan inklusiboak izatea. Hau lortzera heltzeko bertan dauden irakasle zein gainontzeko profesionalek ere bitartekarien papera hartzea eragingo du; honekin batera, ikasle guztiengan dituzten itxaropenak altuak izan beharko dira (Ministerio de Educación, 2006 in López-Vélez, 2018). Izan ere, Duk-ek (2003)

aipatzen duen bezalaxe, irakasleek haien ikasleengan itxaropen altuak edukitzea gako garrantzitsua izango da ikasle hauek ikaskuntzan arrakasta lortzerako orduan.

Gelaren antolaketan arreta jartzen badugu, berebiziko nabarmena izango du irakasle bakoitza bere gelako espazioaren jabe bihurtzea. Modu honetan hezkuntza txoko moldagarriak sortzen ahalegindu beharko da; horretarako, ez da gelaren espazioaz soilik baliatu behar, patioa zein pasabideak ere erabili ditzake. Gune hauetan ikasleriari gainontzeko kideez asko ikas dezatela ikusarazi behar dute, era berean, besteen ikaskuntza prozesuan lagundu dezatela hautemanetz (Echeita, 2016 in López-Vélez 2018).

García (2008) aipatzen duen bezalaxe, ikasgela inklusibo batean irakasleek oso ondo ezagutu behar dituzte ikasle guztien aukerak eta bakoitzak dituen beharrak. Aldi berean, ikasle bakoitzari bere ikaskuntza prozesua garatzeko beharrezko laguntza eskaini behar zaio. Bestetik, ikasle guztiek burutzen dituzten jardueren zergatia eta haien balioa ezagutu beharko dute, jarduera horietan ikasle guztien parte hartzea sustatzen den heinean. Azkenik, ikasgela inklusiboetan nabarmendu beharreko alderdietako bat ikaskuntza kooperatiboa da, estrategia hau izan baita eraginkortasun handiena adierazi duena.

Ikasgeletan burutzen diren ebaluazioei dagokionez, prozesu kooperatibo bat bezalaxe sortu behar da, zeinetan ikasleak eta irakasleak parte hartzen duten. Ebaluazio honetan besteak beste ikasle bakoitzaren ahalmenak, izan duen bilakaera eta izan duen egokitzapen programa kontuan hartu beharko dira (García, 2008).

Bukatzeko, aipatzekoa da irakaslearen papera kasu hauetan garrantzia handia duela. Bere eginkizuna taldearen arduraduna bezala hiru alderdi ditu: burutzen diren jarduera ezberdinen gidaria izatea, taldearen kohesioa eta inklusioa bermatzea eta azkenik, norbanakoen arduraduna ere izatea (García, 2008).

Eskola inklusiboaren atal hau laburtzeko, alde batetik, goian aipatu den bezalaxe, eskola inklusiboaren asmo nagusienetako bat irakasleek eta irakasleek dibertsitatearen aurrean eroso sentitzea da. Azken finean, eroso sentitzen badira, dibertsitate horri esker hezkuntza aberastea lortuko dute. Bestetik, eskola inklusiboak ezaugarri hauek eduki behar dituela momentu oro kontuan hartu behar da: ikasle guztiak pertsona gisa kontuan hartzea, pertsonak izaten, gauzak egiten, ikasten eta besteekin elkarbizitzen irakasten

dien hezkuntza izatea eta harremanak errespetuz eta ekitatez sortzen laguntzen duen hezkuntza izatea.

1.2- Ikaskuntza-zerbitzua

1.2.1- Zer da ikaskuntza-zerbitzua?

Ikaskuntza-zerbitzua irakaskuntza-ikaskuntza metodo berritzaile bat bezala defini daiteke. Metodo honek gizarteari eskainitako zerbitzuak barnebiltzeaz gain, ikasketen, norbanakoaren hazkuntzaren eta hiritar bezala daukagun arduraren inguruan iritzi eta hausnarketa kritiko bat sorrarazten lagundu egiten du. Honekin batera, ikaskuntza-zerbitzuaren helburua gizartea aldatzeko gai diren hiritar adituak sortzea izango da; izan ere, ikaskuntza-zerbitzua gizarteak dituen beharrak albo batera uzten dituen hezkuntza sistemaren erantzuna da (Aranburuzabala, Cerrillo eta Tello, 2015).

Gezuraga eta Herreroren (2017) hitzak kontuan hartzen baditugu, pedagogia honen helburua honako hau izango zen: gizarteko eskakizunei erantzun egokia ematen duen hezkuntza lortzea, gazteak protagonistak diren bitartean.

Metodologia hau ikaskuntza prozesuak eta komunitateari eskainitako zerbitzuak barnebiltzen dituen hezkuntza proposamen bat bezala uler daiteke. Kasu honetan, parte hartzaileek testuingurua hobetzeko helburuarekin lan egiten duten bitartean ikasi egiten dute (Rubio, 2007).

Beste hainbat autore eta erakundeek kontzeptu honen definizioak ere eman dituzte. Haien artean Tapiaren (2016) hitzak aipatu behar dira, autore honek ikaskuntza-zerbitzua hezkuntza proiektu bat bezala definitzen du, ikasleen eskutik protagonizatua dagoena.

Azkenik, Zerbikas fundazioak eskaintzen duen definizioa daukagu. Haien esanetan, ikaskuntza-zerbitzua edukien garapena modu praktiko batez lantzea errazten duen eredu pedagogiko bat da. Honetaz gainera, nabarmendu behar da metodologia hau oso egokia dela gizarte-bazterketa prozesuez ohartzeko (Mendia eta Moreno, 2010).

Bere izenean ondo adierazten den moduan, ikaskuntza-zerbitzua bi elementu nagusiz osatua dago: ikaskuntza eta zerbitzua. Bi termino hauek batzerakoan errealitate berri bat sorrarazten da eta bere eragina nabarmendu egiten da (Rubio, 2007):

- Ikaskuntza → ikaskuntzak zerbitzua hobetzen du, ikasten dena ekintza moduan transferi daiteke eta kalitatezko zerbitzu bat eskaintzea ahalbidetzen du.
- Zerbitzua → Zerbitzuak ikaskuntza hobetzen du, motibatu egiten du, zentzua ematen dio eta ikaskuntza berriak lortzeko aukera ematen du.

1.2.2- Ikaskuntza-zerbitzuaren egituraketa

Ikaskuntza-zerbitzuen proposamena hiru modu ezberdinez uler daiteke (Tapia, 2016):

- Ikasleen eskutik sortutako esperientzia, proiektu edo zerbitzu solidarioko programa instituzionalak bezalaxe.
- Ikaskuntza.-irakaskuntza metodologia bat bezala. Benetako arazoak oinarri bezala hartuz ikaskuntza bultzatzen den bitartean.
- Filosofia edo pedagogia bat bezala.

Tapiak (2016) adierazten duen moduan, proiektu edo programa bat ikaskuntza-zerbitzu gisa izendatuko da hiru ezaugarri hauek aldi berean adierazten dituzenean:

- Komunitate baten benetako beharrei modu egokian aurre egiten ahalegintzea.
- Bai planteamendua zein ebaluazioa ikasleen eskutik sortua izatea.
- Ikaskuntza edukiekin lotua egotea.

Bi mekanismo nagusi daude ikaskuntza-zerbitzua tresna eraginkorra bilakatzen dutenak: prozesua eta emaitzak (Aranburuzabala et al, 2015). Alde batetik, baieztatu egin da ikaskuntza-zerbitzuek eragiten duten prozesu mentalei esker ikaskuntza prozesuak hobetzen direla (Johnson, 2003; Steiner eta Watson 2006 in Aranburuzabala eta al, 2015). Bestetik, ikaskuntza-zerbitzuak hezkuntzarako interes handiko emaitzak adieran uzten ditu. Honekin batera, aipatzekoa da, ikerketa askok baieztatu dutela metodo honek ikasleek pentsamendu kritikoa eta arazoei aurre egiteko ahalmena garatzerako orduan laguntzen duela (Eyler eta Giles, 1999 in Aranburu et al, 2015).

1.2.3- Zer ez da ikaskuntza-zerbitzua?

Ikaskuntza-zerbitzua definitzen denean beste hainbat pedagogiekin konparatzen behartuak ikusten gara. Haien artean borondatezko lana, noizbehinkako ekintza boluntarioak eta landa lanak nabarmentzen dira, besteak beste. Hiru alderdi hauek ikaskuntza-zerbitzuarekin konparatzen ditugunean ezberdintasun anitz ikusteko aukera izango dugu (Rubio, 2007).

Alde batetik, borondatezko lanari dagokionez, komunitateari eskainitako eduki handiko zerbitzua da baina, ez du zertan ikaskuntza bat suposatu behar. Honek ez du esan nahi, lan hau ikaskuntza zerbitzura ailegatzeko abiapuntu desegokia denik. Bestetik, landa lanak intereseko erakunde batean, practicum batean edo beste toki batzuetan burutu daitekeen lana da. Kasu honetan, Curriculum bateko eduki espezifikoean izango du ardatza eta komunitate bati eskainiko dion zerbitzua oso baxua izango da. Borondatezko lana bezalaxe, landa lana ere ikaskuntza-zerbitzura ailegatzeko abiapuntu bikaina izan daiteke (Rubio, 2007).

Azkenik, noizbehinkako ekintza boluntarioak dauzkagu. Ekintza hauek ikaskuntza-zerbitzuaren kontrako eremuan aurkitzen dira. Eskaintzen den zerbitzua momentu konkretu batera mugatu egiten da eta ikaskuntzak ez dira oso sistematizatuak egoten.

Aurkezten den irudi honetan goian azaldutako guztia modu eskematikoago batean azaldu egiten da:

1. Irudia: Ikaskuntza-zerbitzu eta beste pedagogien ekarpenak ikaskuntza eta zerbitzu alderdietan



Oharra: Rubio, 2007, 6. orrialdea.

1.2.4- Ikaskuntza-zerbitzuaren oinarritzko baldintzak

Ikaskuntza-zerbitzu proiektuek bost alderdi komun eduki behar dituzte haien helburuak bete ahal izateko. Eduki beharreko oinarritzko baldintza horiek honako hauek dira: ikaskuntza, zerbitzua, proiektua, parte hartzea eta hausnarketa (Rubio, 2007).

Ikaskuntza puntuari dagokionez, ikaskuntza sistematizatu izan behar da eta aurrera eramango den zerbitzuarekin lotua egon beharko du. Honetaz gain, ikaskuntzaren protagonistek zerbitzua jaso baino lehen, zerbitzua ematen den bitartean eta behin zerbitzua eman dela ikasiko dutena argi utzi beharko da. Ikaskuntzek errealitatea ulertzen, beharrak diagnostikatzen, kalitatezko zerbitzu bat eskaintzen eta etorkizunean

hobetzen lagundu behar du. Gainera, ikaskuntza zerbitzuen bidez zeharkako kompetentzien lanketa nabarmendu egiten da (Rubio, 2007).

Zerbitzuarekin jarraitzeko aipatu beharra dago bere helburua inguruneke benetako beharrak hobetzeko erantzuna ematea dela. Ikaskuntza-zerbitzu metodoan zerbitzuak izaera asistentzialista duten ekintzez alde egiten saiatzen da eta bere protagonisten formakuntzan eta ikastetxeko testuinguruan talka handia eragiten du. Horretarako beharrezkoa suertatzen da pertsona, instituzio eta gizarte eragile ezberdinen arteko elkarlana sendoa izatea (Rubio, 2007).

Proiektuaren atala aztertzean kontuan hartu behar da aurretik irakasleak modu egokian antolatutako eta ebaluatutako proiektu bat izan beharko dela; hau da, ez da ikaskuntza espontaneoko egoerekin nahasi behar. Hau horrela izanda, kalitatezko zerbitzu bat lortzeko landu behar diren gaitasunak, helburuak eta edukiak ondo finkatuak egon beharko dira (Rubio, 2007).

Esan bezala ikaskuntza-zerbitzuan ikasleen parte hartzeari garrantzi handia ematen zaio. Beraz, haien parte hartzea aktiboa izan beharko da eta momentu oro protagonistak ikasleak izan beharko dira. Hori dela eta, bere protagonistak izan beharko dira fase ezberdinak garatzen dituztenak, bai beharrak identifikatzen lagunduz zein hobekuntza proposamenak eginez (Rubio, 2007).

Azkenik hausnarketa daukagu, atal hau garrantzitsuena dela esan daiteke. Izan ere, ikaskuntza-zerbitzuetan beharrezkoa suertatzen da gertatutako eta egindako guztiaren inguruan hausnartzea. Horretarako zer ikasi den, prozesuaren bilakaera, lortutako emaitzak eta hobekuntzak proposatzea komentatzeak berebiziko garrantzia hartzen du. Honek zerbitzua hobetzeko aukera ematen du eta hurrengoan kalitate handiagoa duen zerbitzu bat eskaintzeko aukera emango du, ikaskuntza esanguratsua lortzen den heinean (Rubio, 2007).

1.2.5- Ikaskuntza-zerbitzuaren egitura

Aurretik aipatu den bezala, ikaskuntza-zerbitzua bi elementuen arteko konbinazio bat da. Bi elementu horien arteko lotura da beste hainbat alderditik bereizten duen ezaugarri nagusia. Ondorioz, emaitza egokiak lortzeko adieran utziko den ikaskuntza-zerbitzua modu egokian egituratu egon beharko du (Puig, Martín eta Battle, 2008).

Ikaskuntza-zerbitzu bat martxan jarri nahi izatekotan komenigarria da aurrera eramango den proiektua modu egokian garatzea. Horretarako proiektua sortzen denetik bukaerako ebaluazioa edo hausnarketa egin arte pausu batzuk jarraitzea komenigarria da; honi esker, lana modu egokian ordenatu eta bideratuko da (Puig et al, 2008).

Proiektuaren prestakuntza, martxan jartzea eta ebaluazioa garrantzi handia duten atalak dira eta zazpi etapa ezberdinetan banatuak egoten dira. Etapa hauetako bakoitzak indar handiagoa izango du proiektuaren arabera; hau da, garatuko den proiektuaren arabera fase batzuk nabarmenduko dira eta besteak bigarren maila batean garatuko dira. Aipatutako zazpi faseak honako hauek dira (Puig et al, 2008):

1. Zirriborroaren garapena:

Ikaskuntza-zerbitzu proiektu guztien abiapuntua interesgarria suertatzen den ideia bat izaten da. Behin ideia zehaztua dagoela eskolaren zuzendaritza taldearekin adostu eta proiektua martxan jartzeko momentu eta toki aproposenak zein diren adostuko dira.

Lehenengo etapa honen amaieran, erantzuna emango zaion arazoa zein den, ikasleek garatuko duten zerbitzua zein izango den eta zein ikaskuntza bereganatuko dituzten galderei erantzuten dituen eskema bat prest eduki beharko da.

2. Erakunde sozialekin harremanak eraikitzea:

Normalean ikaskuntza-zerbitzu bat garatu ahal izateko ezinbestekoa izaten da erakunde, hartzaile eta abarren arteko harremanak eraikitzea, eskolak bakarrik ezin duelako horrelako proiektu bat aurrera eraman.

Bigarren etapa honen amaieran, prozesuan parte hartu duten eragileek haien konpromisoak baieztatzen dituen dokumentu bat sinatu beharko dute.

3. Plangintza:

Etapa honetan proiektuarekin hasteko gida gisa balioko duen dokumentu bat idatzi beharko da; nahiz eta, proiektua martxan jartzerakoan ekintzak planifikatu diren moduan ez atera. Etaparen bukaeran proiektuaren izena ezarrita egon beharko da.

4. Prestakuntza:

Etapa honetan ikasleen ideiak kontuan edukiz proiektuaren diseinuari ekingo diogu. Etapa honen bukaeran egokia izango da ikasleek garatutako mural bat edo antzeko baliabideren bat prest edukitzea.

5. Martxan jartzea:

Proiektua martxan jartzean aurre ikusi ez diren egoerak eman daitezke, hori dela eta, atal honetan proiektua aurrera doan bitartean, plangintzan ezarritako alderdiak eraldatu eta hobetu beharko dira. Amaieran, egindako guztia adieran uzten duen materiala izan beharko da.

6. Hartzaileen amaierako ebaluazioa:

Eta honetan zerbitzua jaso dutenek balorazio bat egingo dute, horretarako bi ardatz nagusi kontuan hartuko dituzte: ikaskuntza eta zerbitzua. Seigarren etapa honen amaieran, ikasleek eraturako baliabide ezberdinak edukitzea komenigarria da, txosten bat edo bideo bat, esate baterako.

7. Zerbitzuaren bultzatzaileen amaierako ebaluazioa:

Azken etapa honetan, zerbitzua eskaini dutenek hausnarketa eta balorazio txiki bat egin beharko dute. Etaparen amaieran, proiektu osoa barnebiltzen duen memoria txiki bat prest eduki beharko da. Modu honetan, aurrera eramandako proiektua besteen esku geratzeko.

1.2.6- Ikaskuntza-zerbitzuaren onurak

Ikaskuntza-zerbitzuak onura ugari sorrarazten ditu alderdi ezberdinetan (Rubio, 2007):

- Bere protagonistengan:
 - Onura eskaintzen ditu bai zerbitzua eskaintzen duten pertsonengan zein jasotzen dutenengan.
 - Ikaskuntza motibatu egiten du.
- Hezkuntza erakundeengan:
 - Ikasleen garapen akademiko, etiko, hiritar, pertsonal, sozial eta profesionala faboratu egiten du eta bere lorpen akademikoak hobetu egiten ditu.
 - Hezkuntza eta metodologia tradizionalen proposamenak gaintzen ditu.
- Gizarte erakundeengan:
 - Komunitateko beste eragileekin modu koordinatu eta bateratu batean lan egitea baimentzen du, gizartea hobetzeko helburuarekin.
 - Gazteak arduratuak izan daitezzen laguntzen du. Ondorioz, etorkizunean kausa solidarioetan parte hartzeko aukera handiagoa izango da.
- Komunitatearengan:
 - Hezkuntza instituzioen eta giza erakundeen arteko elkarlana errazten du.

- Lurraldeak ekintza hezitzaileen eszenatoki pedagogiko, protagonista eta hartzaile moduan bultzatzea ahalbidetzen du.
- Esparru politikoarengan:
 - Hiritarren arduran eta gizartearen hobekuntzan eragiten ditu.
 - Lurralde konkretu batean hezkuntza beharrei erantzuna emateko baliabideak aprobetxatzen laguntzen du.

Atal hau laburbilduz, esan bezala, ikaskuntza-irakaskuntza metodologia berritzaile bat bezala defini daitekeela. Metodologia honek, gizarteari eskainitako zerbitzuak bermatzeaz gain, gai ezberdinen inguruan iritzi eta hausnarketa kritikoak sorrarazten laguntzen du. Honekin batera, ikaskuntza-zerbitzuaren helburu nagusia gizartea aldatzeko gai diren herritarrak heztea dela aipa daiteke. Baina ikaskuntza-zerbitzu batek bai ala bai bost oinarritzko baldintzez egituratua egon behar du: ikaskuntza, zerbitzua, proiektua, parte hartzea eta hausnarketa.

Bukatzeko, aipatu beharra dago, aurrerago azalduko den ikerketa Gasteizko ikastetxe batean garatu den inklusioari buruzko ikaskuntza-zerbitzu bat dela. Aurrera eraman den zerbitzuan atal honetan aipatu eta azaldu diren pausu eta ezaugarri guztiak jarraitu dira; beraz, benetako ikaskuntza-zerbitzu bat izan dela baieztatu daiteke.

2-Testuingurua

Aurrera eraman den ikaskuntza-zerbitzua Gasteizko ikastetxe batean burutu da. Ikastetxea irabaziak ateratzea helburu ez duen kooperatiba bat da. Kooperatiba honetan langileek eta familieek parte hartzen dute eta ikastetxearen ikaskuntza eskaintza haur hezkuntzako 2 urteko gelatik, batxilergoraino luzatu egiten da.

Ikastetxe laiko eta kontzertatua da. Bere helburu nagusia Gasteizko haur eta gazte guztiak modu egokian heztean oinarritzen da, balore kooperatiboak sustatzen diren heinean. Honetaz gain, pertsona kritiko, solidario, arduratsu eta langileak hezteaz ere arduratzen dira.

Ikastetxe honen helburu nagusienetako bat dibertsitateari erantzun egokia eskaintzea da, batez ere, hezkuntza behar bereziek dituzten ikasleekin modu egokian jokatzeko. Hau da, ikastetxe honetan haur eta gazte kopuru handi baten heziketaz arduratu egiten dira, mila ikasle inguruz hain zuzen ere. Ikasle kopuru handi hori dela eta, ikasle aniztasuna ere

nahiko handia dela esan daiteke, ondorioz, behar bereziak dituzten ikasleei atentzio egokia eskaintzeko erronkak dituztela hauteman dute azkeneko kurtsoetan.

Haien pertzepzioaz gain, ikasle hauen familia ere jaso egin dute. Batez ere, ikasle hauen ebaluazioak egiterakoan, klaseak emateko moduan, tratatzeko eran eta beste hainbat alderdietan moldaketak egiteko eskatzen diete. Hori dela eta, ikastetxeko inklusio taldeak Euskal Herriko Unibertsitateari egoera honi irtenbidea bilatzeko laguntza eskatu egin zion. Hori del eta, inklusioari buruzko ikaskuntza-zerbitzua martxan jartzea erabaki egin zen.

3- Ikaskuntza-zerbitzuaren prozesua

Ikaskuntza-zerbitzu hau aurrera eraman ahal izateko, lehenik eta behin, ikastetxeko inklusio taldeak EHUari inklusioarekin duten erronkei aurre egiteko laguntza eskatu zion. Hori dela eta, zerbitzu hau martxan jartzea erabaki zen.

Zerbitzuarekin hasteko eta dena ondo prestatzeko, proiektuan parte hartzen genuen partaide guztiek ikastetxean hainbat bilera aurrera eraman genituen. Modu honetan, guztion artean egoera aztertu eta erabaki ezberdinak hartu genituen ikaskuntza-zerbitzua ahalik eta hoberen garatu ahal izateko eta denok egoerari buruzko informazioa edukitzeko.

Aurrera eraman genituen bilera horietan erabaki anitz hartu genituen. Lehenik eta behin, inklusio taldeak egoeraren berri eman zigun modu zehatz batean. Behin denok egoera zein zen jakinda aztertu behar genituen adierazleak adostu genituen. Adierazle hauek adosteko Booth eta Ainscow-ek (2015) sortutako “Index for inclusion” gidaz baliatu ginen eta adierazle hauek ikasle, irakasle eta familien artean aztertzea erabaki genuen, ikastetxearen parte diren talde ezberdinen egoeraren berri izateko helburuarekin.

Talde bakoitzarekin landuko ziren adierazleak finkatuak zeudela, hiru inkesta mota diseinatzera ekin nion; bat irakasle taldearentzat, beste bat ikasle taldearentzat (DBH eta LH-koentzat) eta azkenengoa familientzat. Inkesta hauen zirriborroak prest zeudela, guztion iritziak partekatuz hobetu egin genituen eta galdeketa guztiak interneten bidez egingo genituela erabaki genuen. Honetaz gain, lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleen galdeketak “irakurketa erraza” erabiliz aurrera eramatea ideia ona izango zela adostu

genuen, ikasle guztiek, bai behar bereziak dituztenek baita ez dutenek ere, galderak erantzuteko gai izateko.

“Irakurketa erraza” ikasleek testuak hobeto ulertzeko hizkuntza erraz eta argira egokitzea da. Horretarako, alde batetik, hitz arruntak erabiltzen dituzten esaldi laburrak, hiztegi sinplea, testuan jartzen duenarekin loturiko irudi sinpleak, esaldi bakoitzeko ideia bakarra eta letra tamaina handia erabili beharko dira. Bestetik, saihestu beharreko alderdi batzuk ere badaude, haien artean, ez ohikoak eta korapilatsuk diren hitzak, ahots pasiboko esaldiak, esaldi negatiboak eta oso ohikoak ez diren zeinu ortografikoak, besteak beste (FEVAS – Plea Inclusión Euskadi, 2018).

Galdeketa bakoitza (eranskinak 8.1 atalean) atal ezberdinez osatua zegoen; atal horien artean honako hauek aurki daitezke: “Itxaropenak ikasle guztientzat altuak dira”, “Evaluaketek ikasle guztien lorpenak sustatzen dituzte”, “Ikastetxeko hezitzaileek lankidetzan ibiltzen da planifikatzeko, irakasteko eta egoerak berrikuzteko”, “Laguntza aukera guztiak koordinatuak daude”, “Ikastetxean hezkuntza behar berezien politikak politika inklusibo bezala txertatzen dira”, “Evaluaketek ikasle guztien lorpenak sustatzen dituzte” eta “Hezitzaile taldea plangintzak, irakaskuntza eta berrikuspenak elkarrekin burutzen dituzte”.

Atal horietako bakoitzean gaiarekin loturiko adierazleak agertzen ziren. Adierazle bakoitzari erantzuna emateko familien eta irakasleen kasuan lau aukera posible zeuden: “de acuerdo”, “ni de acuerdo ni en desacuerdo”, “en desacuerdo” eta “necesito más información”. Ikasleen inkestetan berriz, prozesua errazteko hiru aukera besterik ez nituen ezarri: “si”, “no” eta “no lo sé”. Kasu guztietan adierazle bakoitzeko erantzun bakarra aukeratu behar zuten eta azkeneko galderan ikastetxeari buruz zuten iritzia libreki adierazteko aukera ere eman nien; hau da, ikasleen kasuan honako hau galdetu zitzaien: “¿Qué es lo que más te gusta de tu colegio? ¿Y lo que menos?”

Familiei eta irakasleei berriz galdera hau egin zitzaien: “Me gustaría hacer este comentario respecto al centro escolar...”. Galdera ireki hauei esker, inkestan galdetzen ez ziren gai eta iritzi interesgarrien inguruko informazio oso baliagarria eskuratzeko aukera izan nuen.

Behin inkesta guztiak bidaliak zeudela eta talde ezberdinen erantzunak jaso nituela emaitzen grafikoak aztertu eta ondorio batzuk atera nituen. Lan hau burutu ondoren,

berri, ikastetxeko inklusio taldearekin elkartu eta emaitzen berri eman nien. Nire kasuan Lehen Hezkuntzako familien, ikasleen eta irakasleen inkestak aztertu nituen, hiru talde hauen inkesten emaitzak taldearekin partekatzeko power point bat prestatu nuen. Power point honetan, talde bakoitzean, emaitzen aldetik, deigarrienak ziren bost adierazle aukeratzea erabaki nuen. Beraz, talde bakoitzeko adierazleen emaitza horiek partekatu eta gero, ateratako ondorioen berri eman nien. Jarraian, nire aurkezpena bukatutzat eman genuenean guztion iritziak eta hipotesiak partekatu genituen eta emaitza hauek zuzendaritza taldearekin partekatuko zirela erabaki genuen.

Azkenik, azkeneko bilera falta zaigu. Bilera honetan DBH eta HH-ko inkestetan lortutako emaitzak eta ondorioak komentatuko ditugu. Hori eta gero, ikastetxe honetan inklusioarekin loturiko ikaskuntza-zerbitzua amaitutzat emango da. Izan ere, egoera aztertu, emaitzak atera eta hausnarketa burutu ondoren, ikastetxearen esku geratuko da horretan sakondu eta hobekuntza plan bat aurrera eramatea edo egoera dagoen moduan uztea.

Atal honi amaiera emateko aipatu beharra dago, Rubiok (2007) ikaskuntza-zerbitzuaren inguruan aipatzen dituen oinarrizko baldintzak (ikaskuntza, zerbitzua, proiektua, parte hartzea eta hausnarketa) zerbitzu honetan zehazki bete izan direla.


4- Lortutako emaitzak

Ikastetxeko egoera modu egokian aztertzeko, aurretik esan bezala, hiru inkesta ezberdin landu genituen. Inkesta horietako bakoitza hainbat galderaz osatuta dago eta galdera horiek bloke ezberdinenetan barnebiltzen dira. Atal honetan, Lehen Hezkuntzako familiak, ikasleak eta irakasleak kontuan hartuz gero, parte hartzea honako hau izan dela aipatu beharra dago: 104 familia, 287 ikasle eta 16 irakasle. Jarraian, galdera bakoitzean lortutako emaitzen grafikoak aztertu egingo dira ikerketaren emaitzak zehatzago aztertu ahal izateko (emaitzen grafiko guztiak eranskinak 8.2 atalean).

4.1- Familien inkesten emaitzak

Familiei pasatutako galdeketari dagokionez hiru azpiataletan banatua dagoela aipatu behar da: “itxaropenak ikasle guztientzat altuak dira”, “ebaluaketek ikasle guztien lorpenak sustatzen dituzte” eta “ikastetxeko irakasleagoa lankidetzan ibiltzen da

planifikatzeko, irakasteko eta egoerak berrikuzteko” (familien inkestaren txosten osoa eranskinak 8.2.2 atalean).

 *Itxaropenak ikasle guztientzat altuak dira:*

- Ikastetxe honetan nire seme-alabek bere lorpen handienak lor ditzake.


Ikastetxeko familien erdia baino pixka bat gutxiago (%49) baieztapenekin ados agertzen da. Bitartean familien %51k ez du hain argi ikusten. Gainera, nabarmentzekoa da %51 horren barruan familien ehuneko handi batek (%61) zalantzak dituela baieztapen honi erantzuna emateko eta ez dute ez adostasuna ezta desadostasunik ere erakusten.

- Nire seme-alaben ikastetxean edozein limite gainditu daitekeela ulertzen da.

Kasu honetan altuagoa da ados aukera markatu ez duten familien ehunekoa (%57), baina aipatzekoa da familien %43a adierazle honekin bat datozela. Deigarria den beste datu bat “ados” aukera sakatu ez dutenen familien ehunekoaren barruan ehuneko handi batek (%54) ez dago baieztapenarekin ez ados ezta desados.

- Nire seme-alaben ikastetxeko hezitzaileek badakite ikasle batzuekin (hizkuntza ulertzen ez dutenak, behar bereziak dituztenak, pobrezian bizi direnak...) egin behar

2. Irudia: Hezitzaileek egin beharreko ahaleginak ezagutzen dituzte.



Oharra: Egileak egindakoa.

dituzten ahaleginak zeintzuk diren haienganako itxaropenak baxuak ez izateko.

Idea honekin ados dauden familien ehunekoa ez da oso altua; izan ere, %46ak baino ez dago baieztapen honekin guztiz ados. Gainontzeko familiek (%54) informazio gehiago behar dute, desadostasun adierazten dute edo ez daude ez ados ezta desados.


- Ikastetxean ikasleak diren moduan eta direnagatik baloratuak sentituz gero lorpen handiagoak lortuko dituztela ulertzen dute.

Familien ehuneko handi bat (%62) baieztapenarekin guztiz ados adierazten da. Bitartean %39ak ez dago hain ados baieztapen hori betetzen den ideiarekin. Zalantza adierazten duten familien ehunekoa ere nahiko altua da.

- Ikastetxean ikasle guztiek haien lorpenez harro sentitzeko lagundu egiten dute eta bakoitzaren lorpenak besteekin konparatu gabe baloratzen dira.

Gurasoen erdiak baino gehiago (%56) adierazlearekin adostasuna adierazi dute. Bitartean, beste %44ak ez du hain argi eta informazio gehiago behar duela, baieztapenarekin ados ez dagoela edo ez dagoela ez ados ezta desados markatu egin du.

3. Irudia: Porrot sentazioak saihesten dira.



Oharra: Egileak egindakoa.

- Ikastetxean ikasleei eta haien familiei porrot sentazioa transmititza saihestu egiten da “garapen normala” ez duten ikasleak identifikatzerako orduan.

Familien %49ak ados adierazten da baieztapenarekin baina, beste %51k ez du hain argi. Aipatzekoa da %22ak baieztapenarekin desadostasuna adierazi dutela.

- Ikastetxeko hezitzaileek badakite ikasle bat bere burua Curriculumeko atal batean ezgai ikusten duenean, honek bere bizitza osoan eragina izan dezakeela.

Baieztapen honen aurrean familien oso ehuneko txikia (%39) ados agertu da. Gainontzeko %61a ez dago ez ados ez desados, erabateko desadostasuna adierazten du edo gaiaren inguruko informazio gehiago behar duela markatu du. Nabarmentzekoa da azkeneko aukera hau familien %23ak markatu duela eta ehuneko hori gainontzeko aukerakoekin konparatuz gero nahiko handia dela esan daiteke.

- Ikastetxeko hezitzaileek gauzak ulertzeko zailtasun handiagoak dituzten ikasleenganako iritzi negatiboak gara ez daitezen ahalegindu egiten dira.

Alde batetik, %56a adierazlearekin bat dator; bestetik, familien beste %44a ez dago baieztapenarekin ados eta beste aukeretako bat markatu egin du. Beraz esan daiteke, nahiko berdin daudela ados dauden familien ehunekoa eta aukera hori markatu ez dutenena.

- Ikastetxeko hezitzaileek ez dituzte ikasleak haien emaitzengatik etiketatzen.


Bakarrik familien %44a ados dago baieztapen honekin. Beste %56a beste hiru aukeretako bat markatu egin du eta azpimarratzekoa da gurasoen ehuneko nahiko handi batek (%24) baieztapenarekin erabateko desadostasuna adierazi duela.

- Ikastetxeko hezitzaileek emaitza onak lortzen ez dituzten edo emaitza bikainak lortzen dituzten ikasleenganako mespretxu-etiketak saihesten dituzte.

Familien %55ak ados daude baieztapen honekin. Baina, beste %45ak ez du hain argi ikusten adierazlea betetzen denik. Gainera, familien %16ak gaiaren inguruko informazio gehiagoren beharra duela adierazi du.


- Ikastetxe honetan hezitzaileek ikasle guztiek talentuak dituztela transmititzen dute.

5. Irudia: Ikasle guztiek talentuak dituztela transmititzen da.



Oharra: Egileak egindakoa.

4. Irudia: Irakasleenganako iritzi negatiboak saihesten dira.




Oharra: Egileak egindakoa.

Familien %56aren ustez baieztapen hau zuzena da eta berarekin bat datoz baina, beste %44ak ez dauka hain argi eta ez du “ados” aukera sakatu.

✚ *Ebaluaketek ikasle guztien lorpenak sustatzen dituzte:*

- Ikastetxeko hezitzaileek ebaluazioetan ikasleen ahalmen mailaren inguruko edo haien

6. Irudia: Ebaluazioetan ikasleenganako balorapenak
saihesten dira.



aukeren inguruko balorapenak egitea

saihesten dute.

Adierazle hau ez da oso ondo baloratua atera. Familien %40ak soilik uste dute adierazle hau betetzen dela, bitartean gurasoen beste %60ak ez du “ados” aukera sakatu eta informazio gehiagoren beharra duten familien ehunekoa (%26) nahiko handia da.

Oharra: Egileak egindakoa.

- Nire seme-alaben ikastetxean ebaluatzeko frogetan moldaketak egiten dira ikasle guztientzat bidezkoak izateko. Honetaz gain, ebaluatzeko metodo ezberdinak erabiltzen dituzte ikasleen abilezi, ahalmen eta izaera ezberdinak kontuan hartuz.

Adierazle honi dagokionez bakarrik familien %32a adostasuna adierazten du. Nahiko handia den beste ehunekoen familiek (%68) ez dute uste baieztapen hau zuzena denik. %68ko portzentaje hori modu honetan banatu egin da: ez ados ezta desados aukera %25ek aukeratu dute, guztiz desadostasuna adierazi duten familiak %25 dira eta azkenik, informazio gehiagoren beharra adierazi dutenak %18a izan da.

- Ikastetxeak familiak haien seme-alaben ikaskuntzari buruzko elkarrizketetan parte hartzea ahalbidetzen du.

Gurasoen %58a adostasuna adierazten du baieztapen honekin. %5ak ez du ez adostasuna ezta desadostasuna adierazten, %11 ez dago adierazlearekin ados eta azkenik, %7a informazio gehiago behar duela jakinarazi du.

✚ *Ikastetxeko hezitzaileek lankidetzan ibiltzen da planifikatzeko, irakasteko eta egoerak berrikuzteko:*

- Ikasle baten garapena kezkarria denenean hezitzaileek modu bateratu batean parte hartzen dute bai ikastetxearen barruan zein kanpoan ere.

Familien erdia baino gehiago (%54) ez du “ados” aukera markatu. Bitartean, beste %46ak adierazlearekin adostasuna adierazi du.

- Ikastetxean hezitzaileak elkar babesten dira ekintza berriak planteatzerakoan eta aurrera eramaterakoan.

Alde batetik, gurasoen %49a ados dago adierazle honek baieztatzen duenarekin. Bestetik, %51 dago, ehuneko honetan informazio gehiago behar duten familiak, gutiz desados daudenak eta ados ez daudenak baina desadostasuna adierazten ez dutenak ere kokatzen dira.

Familiei egindako inkestan lortutako emaitzak aztertzerakoan iritziak nahiko ezberdinak direla ikusten da. Gainera talde honen erantzunetan oinarrituz beste biak baino askoz kritikoagoak direla ikus daiteke. Honetaz gain, alderdi ezberdinetan ezjakintasuna adierazten dute eta horren ondorioz, gai askoren inguruan informazio gehiago behar dutela aipatzen dute.

Ebaluaketekin loturiko ideiak aztertzerako orduan, alde batetik, familien desadostasuna nabarmentzen da. batez ere, ikasleak ebaluatzerakoan bakoitzaren berezko ezaugarriak kontuan hartzen direnaren ideiarekin. Bestetik, informazio gehiago aldarrikatzen duten alderdietako bat ebaluazio frogetan egiten diren moldaketetan da, gai honen inguruan ezjakintasun handia adierazi baitute. Halaber, badago ideia bat modu argiago batez ikusten dutena, ikasleen ikaskuntzari buruzko elkarrizketetan parte hartzeko aukera ematen zaiela.

4.2- Ikasleen inkestaren emaitzak

Ikasleen galdeketa aztertzen badugu, kasu honetan galderak ez daude azpialat ezberdinetan banatuak, denak multzo berdinean kokatu egiten dira (ikasleen inkesten txostena eranskinak 8.2.3 atalean). Ikasleei eginiko galderak eta lortutako emaitzak honako hauek dira:

- Nire ikastetxean nahi dudak guztia lor dezaket.

Adierazle honi dagokionez ikasleengan ez da adostasun handia ikusten; izan ere, %46ak “bai” aukera aukeratu du, %24ak “ez” aukera eta azkenik, %31k “ez dakit” aukeraren alde egin du. Horregatik ikus daiteke orokorrean ikasleek ez daudela guztiz ados baieztapenarekin.


- Nire ikastetxean edozein arazori aurre egin diezaioket.

Baieztapen honekin alde batetik, ikasleen gehiengoa (%70) ados agertzen da. Bitartean gainontzeko %30a ez dauka hain argi bere ikastetxean edozein arazori aurre egin diezaiokkeenik.

- Nire lana ondo egiten dudala esaten didatenean emaitza hobeak eskuratzen ditut. Aldi berean, nire arrakastez harro sentitzen naiz.

Ikasleen kopuru handi batek (%74) ideiarene bat dator eta “bai” aukeraren alde egin du. Bestetik, %26ak “ez” aukera edo “ez dakit” aukeraren alde egin du.

7. Irudia: Bakoitzaren arrakastak baloratzen dira.



Oharra: Egileak egindakoa.


Ikasleen %62ak haien irakaslea “onak” edo “txarrak” bezala etiketatzen ez dituela esaten du. %20ak izendatze horiek gertatzen direla baieztatzen du eta %18ak berriz, ez dakiela adierazi egin du.

- Irakasleak nire arrakastak baloratzen ditu besteekin konparatu gabe.

Ikasleen %62a baieztapen hau zuzena dela uste du, gainontzeko %38ak ez dauka horren argi.

- Irakasleak “onak” edo “txarrak” bezala izendatzen gaitu.

8. Irudia: Ikasleak haien emaitzazatik kritikatzeko dira.



- Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak edo oso emaitza onak lortzen dituzten ikasleak kritikatzeko ditut.

Ikasleen ehuneko oso altu batek (%92) haien ikaskideak ez dituztela kritikatzeko adierazi egin du. Bestetik %3ak kritikatzeko dituela onartu egin du eta %5ak ez dakiela erantzun du.

- Irakasleek guztiok asko ikasten dugula uste dute.

Oharra: Egileak egindakoa.

Ikasleen %61k haien irakasleek guztiok asko ikasten dutela uste du, bitartean %10ak horrela gertatzen ez dela aitortu du. Azkenik, %29ak “ez dakit” aukeraren alde egitea zuzenago ikusi du.

- Nire klasekideak lagundu egiten ditut eta esaten dutena eten gabe entzuten dut.

Alde batetik, haurren %79a adierazle honen alde agertu da eta haien klasekideak lagundu eta entzuten dituztela baieztatu dute. Gainontzeko ikasleen %21a, ehuneko txikiagoa izan arren, ez dago baieztapenaren alde edo zalantzak ditu.


- Nire ikaskideetaz bakarrik barre egiten dut txantxa bat egiten dutenean.

Ehuneko handi batek (%81) baieztapena zuzena dela esan du; hau da, haien klasekideetaz soilik bromak direnena barre egiten dutela. Beste %8a adierazlearen kontra agertu da eta %11k ez dakiela esan du.

- Zerbaitekin ados ez banago errespetuz esaten dut.

Adierazlearen alde agertu diren ikasleen ehunekoa nahiko handia izan da (%78). Baina ikasleen gainontzeko %22a ez dago baieztapenarekin hain ados.

9. Irudia: Taldeka lan egiten dugu.



- Normalean taldeka lan egiten dugu eta horrela lan egiten dugunean guztion jakintzetara moldatu egiten gara.

Adierazle honetan “bai” aukeratu duten ikasleen ehunekoa (%59) eta “ez” edo “ez dakit” (%41) aukeratu dutenen arteko aldea ez da oso handia.

- Eztabaidetan guztiok parte hartzeko arauak ezagutzen ditugu.

Oharra: Egileak egindakoa.

Ikasleen %74ak eztabaidetan modu egokian parte hartzeko modua zein den ezagutzen dutela baieztatu dute. %10ak berriz ez dakiela adierazi egin du eta azkenik, %16ak galderari erantzuten ez dakiela markatu du.

- Taldean lan egiterakoan lanak banatu egiten ditugu eta elkarrekin ikasten dugu.

Haurren %77a adierazlearen alde agertu da, beste %23ak berriz, ez du “bai” aukera aukeratu eta “ez” edo “ez dakit” markatzearen alde egin du.


- Besteei ikasi dudana azaltzen ikasi dut.

“Bai” aukeratu duten ikasleen ehunekoa (%77) “ez” (%6) eta “ez dakit” (%17) aukeratu dutenena baino askoz altuagoa da.

- Guztiok elkarrekin ikas dezagun laguntzen dut.

Ikasleen %71 bat dator adierazle honetan jartzen duenarekin, %5a berriz guztiz kontra adierazten da eta azkenik, %24a ez daki zer erantzun.

10. Irudia: Lanak banatu eta elkarrekin ikasten dugu.



Oharra: Egileak egindakoa.

- Talde jarduerak asko gustatzen zaizkit.

Baieztapen honekin ikasleen ehuneko handi batek (%83) ados dagoela adierazi du. Ikasleen gainontzeko %17ak baieztapenarekin desados dagoela edo ez dakiela zer erantzun adierazi egin du.

- Nire irakasleekin batera nire klasekideak laguntzen ditut beharrezkoa denean.

Ikasleen %77a ados daude irakasleekin batera haien klasekideak laguntzen dutelarekin, bestetik, %5ak adierazle honen kontra agertzen da ez dutela egiten adieran utziz. Azkenik, %18ak “ez dakit” aukera markatu egin du.

- Zerbait berria ikasten dudanean gehiago ikasteko gogoak sortzen zaizkit.


Ikasleen %77a zerbait berria ikasten duenean gehiago ikasteko gogoak sortzen zaizkiola ideiarekin ados dagoela baieztatu du. Bestetik, %23ak horrela ez dela adierazi egin du.

- Klasekideekin nire arazoak nola gainditu ditudan partekatzen dut.

Ikasleen %63ak baietz erantzun dio baieztapenari baina ez dago alde handia “ez” eta “ez dakit” erantzun duten ikasleen ehunekoarekin (%37).

- Elkarrekin ikaskuntza arazoak konpontzen ditugu.

11. Irudia: Ikaskuntza arazoak konpontzen dira.



Oharra: Egileak egindakoa.

“Bai” aukeraren alde egin duten ikasleen ehunekoak (%78), “ez” eta “ez dakit” erantzun dutenena (%22) baino askoz altuagoa izan da.

Ikasle taldeko emaitzak ondo aztertu eta gero, orokorrean baloratuak sentitzen direla ikusten da. Gainera, haien irakasleek beste ikasleekin konparatzen ez dituztela adierazi egin dute; nahiz eta, ehuneko txiki bat konparatuak sentitzen direla onartu duen, kasu hauetan egokia izango zen portzentaje hauek aztertzea. Honetaz gain, gehiengo handi batek besteei laguntza eskaintzen dutela, ez dituztela besteak kritikatzeko eta bullying-aren inguruan kezka handia dutela adierazi dute. Azkenik, oso positiboki baloratu egin dituzte ikaskuntza kooperatiboa eta talde lana, haien hitzetan taldeka lan egitean gehiago ikasten dutelako.

4.3- Irakasleen inkestaren emaitzak

Bukatzeko, azkeneko inkesta mota aztertzen badugu irakasleek adierazi dituzten datuak interpretatzea tokatzen da (inkestaren emaitzen txosten osoa eranskinak 8.2.1 atalean). Irakasle taldearen galdeketaren barruan lau atal ezberdintzen dira: “Laguntza aukera guztiak koordinatuak daude”, “Ikastetxean hezkuntza behar berezien politikak politika inklusibo bezala txertatzen dira”, “Ebaluaketek ikasle guztien lorpenak sustatzen dituzte” eta “Hezitzaile taldea plangintzak, irakaskuntza eta berrikuspenak elkarrekin burutzen dituzte”.

✚ *Laguntza aukera guztiak koordinatuak daude:*

- Laguntza aniztasunari erantzuna emateko modu bat bezala ulertzen da.


Adierazle honi dagokionez, ikastetxeko hezitzaileek eman beharreko erantzuna zein den nahiko argi dutela esan beharra dago; izan ere, %94ak ados dagoela adierazi egin du. Bitartean, beste %6ak informazio gehiago behar duela markatu du.

- Laguntza mota guztiak koordinatuak daude ikastetxearen garapen inklusiboaren parte izateko.

Galdera honi dagokionez, “ados “ aukeraren alde irakasleen %63a agertu da. Berriz, beste %38ak desadostasuna edo informazio gehiagoren beharra duela adierazi du.

- Ikastetxean ulertzen da lankidetzan oinarritutako kultura bat garatzea, banakako

12. Irudia: Lankidetzan banakako laguntza baztertea bezala ulertzen da.



Oharra: Egileak egindakoa.

laguntza beharrezkoa izango ez balitz bezala ulertzea ekar dezakeela.

Kasu honetan aukeratu ahal diren lau aukerak nahiko parekatuak atera dira. Baieztapenarekin “ados” daude hezitzaileak %25a dira, adierazlearen kontra daudenak berriz, %38a dira, bestetik, ez daudenak ez ados ezta desados ere ez %13a dira. Azkenik, informazio gehiago behar duten hezitzaileen multzoa aurkitzen da, kasu honetan %25a.

- Ikastetxeak garrantzi handiagoa ematen dio ikasleek haien artean laguntzeari, heldu batek banakako laguntza emateari baino.

Adierazle honetan ez dugu ikusten lau aukeretako baten nagusitasun argirik. Hezitzaileen %44ak “ados” aukeraren alde egin du eta %9ak “ez ados ezta desados” aukeratu du. “Erabateko desadostasuna” adierazi duten langileak %29a izan dira eta azkenik, %18ak “informazio gehiago behar dut” markatu egin du.

- Ikastetxean laguntza, jolasteko, ikasteko eta parte hartzeko oztopoak alde batera uzteko aukera bat bezala ulertzen da.


Kasu honetan, hezitzaileen ehuneko handi bat (%88) ados dago baieztapenarekin eta laguntza oztopoak alde batera uzteko aukera bat bezala ulertzen denaren alde agertzen dira. Bestetik, irakasleen %6a ez dago horrekin ados eta beste %6ak informazio gehiago behar duela aitortu du.

- Ekintza guztiak laguntza bateratu baten politika batez koordinatuak daude.

Hezitzaileen erdiak (%50) baieztapen hau zuzena dela adierazi dute. Bitartean beste %50a ez dago honekin guztiz ados eta beste aukera batzuen alde egitea erabaki du: “ez ados ezta desados ere ez” %25a, “erabateko desadostasuna” %6a eta azkenik, %19ak informazio gehiago behar duela adierazi du.

- Ikastetxeko politikak erabaki baino lehen familiekin adostu egiten dira.

13. Irudia: Ikastetxeko politikak familiekin adosten dira.



Oharra: Egileak egindako.

Hezitzaileen ehuneko handi bat (%81) baieztapenarekin guztiz ados agertu da, gainontzeko %19ak ez dauka hain argi ez duelako ez adostasuna ezta desadostasuna ere adierazten edo informazio gehiago behar duelako.

- Ikastetxeko politiketan modu argi batez adierazita dago ikastetxetik kanpoko pertsonen eskaintzen duten laguntza eta haien parte hartzea zein izan behar den.

Ikastetxeko langileen erdiak (%50) adierazle honekin ados dagoela adierazi du, beste erdiak berriz, informazio gehiago behar duela edo ez dagoela ez ados ezta desados ere aldarrikatu du.

- Ikasleentzako laguntzaren koordinazioa esperientzia duen sail batek eramaten du.


%69a ardura hau esperientzia duen sail batek eramaten duela ideiarekin bat dator. Bestetik, %13a ez dago ez ados ezta desados ere, eta azkenik, %19ak informazio gehiago behar duela adierazi du. “Erabateko desadostasuna” aukera ez du inork aukeratu.

- Ikastetxeko langile guztiak ikaskuntzaren eta parte hartzearen garapena areagotzeko martxan jar daitezkeen baliabide guztiak ezagutzen dituzte.

Irakasleen erdiak baino gehiago (%56) baieztapen hau betetzen dela uste du. %31 ez dago ideiarekin ez ados ezta desados ere ez. Azkenik, %13ak erabateko desadostasuna adierazi du.

- Ikastetxea kezkatu egiten da bere irakasleagoak haien lan esparrua mantentzearen alde egiten duenean eta ez ikasleen onuren alde.

Hezitzaileen %56a ados dago baieztapen honekin, bitartek beste %44a “ez ados ezta desados ere ez”, “erabateko desadostasuna” edo “informazio gehiago behar dut” aukeren alde egin du.

 *Ikastetxean hezkuntza behar berezien politikak politika inklusibo bezala txertatzen dira:*

- Ikastetxeko hezitzaileek normalean ez dute erabiltzen “ikasle normalak” terminoa hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleengandik bereizteko. Gainera, langileek “hezkuntza behar berezi” terminoa “ikaskuntzarako oztipoak gainditzen dituzten ikasleak” terminoagatik ordezkutzen saiatzen dira.

Irakasleriaren %56a ados dago bi baieztapen hauekin. %7ak informazio gehiago behar duela baieztatu du eta geratzen den %40aren erdi bana “ez nago ados, ezta desados” eta “erabateko desadostasuna” aukeren artean banatu da.

- Ikastetxean “hezkuntza behar bereziak” dituzten ikasleen beharrei modu egokian aurre egiteko erabiltzen diren baliabideak baliagarriak izaten dira ikasle dibertsitateari aurre egiteko.

Irakasleen %73a, nahiko portzentaje handia, bat dator adierazlearekin. Berriz, %7ak erabateko desadostasuna adierazi egin du eta azkenik, %20ak informazio gehiago behar duela aldarrikatu egin du.


- Laguntza irakasleen betebeharretako bat tutoreei ikasleen bilakaeraz informatzea da.

Baieztapen honen alde irakasleen %60a agertu egin da. Bestetik, %20a adierazlearen kontra dago “erabateko desadostasuna” aukeraren alde eginez. Azkenik, geratzen den beste %20a ez dauka oso argi zer erantzun, informazio gehiago behar duelako edo ez duelako oso argi ados dagoen edo ez.

- Ikastetxean ikaskuntzarako oztopoak dituzten ikasleak interes ezberdinak edo abilezi ezberdinak dituzten pertsonak bezala ikusten dira eta ez talde homogeen baten partaide bezala.

14. Irudia: Ikaskuntzarako oztopoak dituzten ikasleak ez dira talde homogeen bat bezala ikusten.

Adierazle honekin irakasleriaren erdia baino pixka bat gehiago (%54) ados egon da. Beste %33a ados ez dagoela adierazi egin du eta geratzen den %13a ez daki oso ondo ados dagoen edo ez.



- Ikaskuntza oztopoak ezabatzearen ideia ikasle guztien esperientzien hobekuntzen alde egiteko aukera bezala hautematen da.

Oharra: Egileak egindakoa.

Baieztapen honekin irakasleen gehiengoa ados (%93) dagoela esan behar da. Beste %7a ez dauka oso argi zer erantzun eta ez du ez adostasuna ezta desadostasuna ere adierazi. “Erabateko desadostasuna” eta “informazio gehiago behar dut” aukerak ez ditu inork aukeratu.

- Ikastetxean laguntza irakasleak edozein ikaslek duen eskubide bat bezala ikusten da eta ez “hezkontza behar bereziak” dituzten ikasleentzako mugatua den baliabide bat bezala.

Ikastetxeko irakasle gehienak (%80) ados daude adierazlearekin, %13a ez daki oso ondo ados dagoen edo ez eta falta den %7ak erabateko desadostasuna adierazi egin du.

- Normalean ikastetxean laguntzak ikasgelaren barruan ematen dira eta gela berdineko ikasleek gauza ezberdinak egitea eguneroko errutinen parte bezala ikusten da.

Bi ideia hauekin irakasleen %63a ados agertzen da eta %13a erabateko desadostasuna aldarrikatu du. Falta den %24a informazio gehiago behar duela edo ez dagoela ez ados ezta desados adierazi du.

 *Ebaluaketek ikasle guztien lorpenak sustatzen dituzte:*

- Irakasleen ikaskuntzaren inguruko ebaluazioek irakaskuntzaren inguruko hausnarketa sustatzen dute.

Kasu honetan, irakasleen %67a baieztapenaren alde agertu egin da eta “ados” aukera aukeratu du. Hezitzaileen beste %13ak kontrako aukera aukeratu du (erabateko desadostasuna). Eta gainontzeko %20ak ez duenez oso argi bi aukera horietatik zeinen alde egin “ez ados, ezta desados ere ez” aukeraren alde agertu da.


- Irakasleria ebaluazioaren inguruko esperientzia propioetan oinarritzen da ikasleak ebaluatzeko modua hobetzerako orduan.

Adierazle honi dagokionez, %60ak ados dagoela adierazi egin du. Bitartean, beste %40ak “ez nago ados ezta desados ere ez” eta “informazio gehiago behar dut” aukeren alde egin dute.

- Irakasleei egindako ariketen inguruan hausnartzen laguntzen zaie, bai ariketa idatzietan zein ahoz egindakoetan, hobetzeko zer egin behar duten jakin dezaten.

Irakasleen %60a baieztapen honekin ados dago, baina gainontzeko %40ak informazio gehiagoren beharra aldarrikatzen du.

15. Irudia: Ikasleak ebaluatzean oztupoak identifikatzen dira.



Oharra: Egileak egindakoa.

Baieztapen honetan erabateko adostasuna egon da, ikastetxeko hezitzaileen %100 ados dagoela adierazi baitu.

- Ebaluaketan ikasleak haien ikaskuntzaren inguruan hausnartzeko prestatuak daude.

Adierazle honi dagokionez, irakasleen %67ak adostasuna adierazi egin du. Bitartean, %27ak “ez nago ez ados ezta desados ere ez” aukeraren alde egin du eta falta den %6ak “erabateko desadostasuna” aukera aukeratzea erabaki egin du.

- Hezkuntza taldea ebaluaketetan ikasleen aukerak edo itxaropenak mugatzen dituzten iruzkinak saihesten ahalegintzen da.

Kasu honetan, gehiengoak “ados” aukeraren alde (%53) egin duen arren beste hiru aukeretan nahiko erantzun egon dira: “ez nago ados ezta desados ere” %13a, “erabat desados nago” %20a eta azkenik “informazio gehiago behar dut” %13a. Beraz, adierazle honetan baieztatzen dena oso ondo bereganatua ez dagoela esan daiteke.

- Ebaluatze frogetan moldaketak egiten dira ikasle guztientzat bidezkoak izateko.

Irakasleen %80a baieztapen hau betetzen dela adierazi egin du. Beste %20ak berriz, informazio gehiago behar duela aitortu du.


- Gurasoek haien seme-alaben ikasketen elkarrizketetan parte hartzen dute.

- Ikasleak ebaluatzea ikaskuntza oztopatzen dieten alderdiak identifikatzea inplikatzeko du.

Kasu honetan adierazle orokorrean nahiko argi dagoela esan daiteke; izan ere, irakasleen %93a “ados” aukeraren alde egin baitu. Gainontzeko %7ak berriz, “erabateko desadostasuna” aukera markatu egin du.

- Ikastetxeko hezitzaile guztiek ikasle bakoitzaren ikaskuntza nolakoa den aztertzen dute behaketa eta deskribapen arretatsuak erabiliz.

16. Irudia: Ikasleak ebaluatze behaketa eta deskribapen arretatsuak egiten dira.



Oharra: Egileak egindakoa.

Kasu honetan ere, irakasleen %80a ados dago adierazlearekin eta beste %20ak informazio gehiago behar duela adierazi du.

- Ikastetxean ebaluatzeko modu ezberdinak erabiltzen dira ikasleen nortasun, interesak eta abilezi ezberdinak kontuan hartzen dituztenak.

Baieztapen honi dagokionez iritziak anitzak dira. Alde batetik, %53ak ados dagoela esaten du, %20ak berriz, desadostasuna adierazi egin du adierazle honekiko. Bestetik, %13ak ados ez dagoela baina desados ere ez aldarrikatu du eta azkenik, %13ak informazio gehiago behar duela esan du.

✚ *Hezitzaile taldea plangintzak, irakaskuntza eta berrikuspenak elkarrekin burutzen dituzte:*


- Laguntza irakasleek ekintzak elkarrekin planifikatzen dituzte.

Adierazle honi dagokionez lau aukeretatik ez da bat ere ez nabarmenki gailentzen. Gehien aukeratu duten aukera (%40) “ados” izan da, “desadostasuna” %27ak markatu du, ez dagoela ez ados ezta desados ere irakasleen %13ak adierazi du eta azkenik, %20ak informazio gehiago behar duela markatu du.

- Gela barruan egingo diren ekintzak planifikatzerako orduan, laguntza irakasleen jakintzak kontuan hartzen dira.

Irakasleen %53ak adierazlearekin ados daudela adierazi du, %20ak desadostasuna adierazi egin du eta falta den %26ak berriz informazio gehiago behar duela edo ez dagoela ez ados ezta desados markatu du.

17. Irudia: Ikaskuntza kolaboratiboa sustatzen da.



Oharra: Egileak egindakoa.

- Irakasleek ikaskuntza kolaboratiboa sustatzen dute ikasleak haien ikaskideez ere ikas dezaten.

Baieztapen honen alde irakasleen ehuneko handi bat (%80) egon da. Beste %20ak erabateko desadostasuna edo ez dagoela guztiz ados ezta desados ere adierazi egin du.

- Irakasleek teknologien erabilpena handiago izateko lagundu egiten dute (tabletak, arbel digitalak, ordenagailuak ...)

Adierazle honi dagokionez, irakasle gehienek (%93) ados daudela adierazi dute. Ados aukeraren alde egin ez duten %7ak informazio gehiago behar dutela jakinarazi egin du.

- Ikastetxeko irakasleak elkar laguntzen diote ikaskuntza ikasleen ikuspuntutik ulertzeko.

Irakasleriaren %73a baieztapen honekin ados dagoen bitartean, %7ak desadostasuna adierazi du. Azkenik falta den %20a “ez nago ados ezta desados ere ez” aukeraren alde agertu da.

- Gela berean lan egiten duten hezitzaileek ikasle guztien parte hartzea sustatzeko ardura hartzen dute.

Ikastetxeko hezitzaileen %73ak adierazlearekin ados dagoela adierazi du. Bitartean, irakasleen beste %27ak beste hiru aukeretako baten alde egitea erabaki du.

- Hezkuntza taldeak modu bateratuan lan egiten du, ikastetxearen barruan zein kanpoan, ikasle baten garapena kezkatzekoa denean.

Hezitzaile taldeen %73ak “ados” aukera markatu egin du. “Ados” aukeraren alde egin ez duten %27a beste hiru aukeretako baten alde agertu da.

-Hezkuntza taldeak modu bateratuan lan egiten du planteamendu edo ekintza berriak baloratzerakoan; modu egokian gara daitezten.

Irakasleen ehuneko handi batek (%80) modu bateratuan lan egiten dela uste dute, “ados” aukeraren alde egin baitute. Bestetik, irakasleen beste %20ak “ez nago ados ezta desados” edo “erabateko desadostasuna” aukeraren alde egitea erabaki du.

Hezitzaileen inkesten emaitzak laburtzeko ideiei ezberdinak nabarmendu daitezke. Alde batetik, argi hautematen da oraindik ikasleak modu indibidual batez laguntzeko ideia oso barneratua dutela.

Ikasleek irakasleekin batera haien ebaluazio prozesuan parte hartzeko ideia oso bateratua ez dela argi eta garbi ikus daiteke. Honekin batera, hezkuntza behar bereziak adierazten dituzten ikasleak talde homogeen bat bezala ikustearen ideian ere iritzi oso

ezberdinak agertzen dira. Bi alderdi hauekin nahiko nahastea dagoela esan daiteke, lortutako emaitzetan iritzi ezberdin asko agertu direlako.

Hala ere, ebaluazioak egiteko moduari dagokionez eta ikasleei egin beharreko jarraipenari dagokionez iritziak nahiko bateratua dira. Alabaina, gai batzuetan sakondu behar dutela ere ikus daiteke, haien iritziak adierazten duten moduan hasierako etapa batean aurkitzen direlako eta oraindik egiteko bide handia geratzen zaie.

Beraz, laburbilduz, ikastetxeak nahiko lan ona egiten ari dela esan daiteke, baina lehen aipatu den bezala momentu honetan bidearen hasieran aurkitzen dira eta orain da momentua aurrera pausu hori emateko. Azken finean, hiru talde horien iritziak ezagutzen dituzte eta errazagoa egingo zaie esku hartze egoki bat prestatzea eta aurrera eramatea.

5-Hausnarketa

5.1- Lortutako emaitzak

Analisia egiterako orduan lortutako emaitzak kontuan hartzen baditugu, marko teorikoko eskola inklusiboaren hainbat alorrekin lotura estua dutela ikus dezakegu. UNESCO-ren (2005) aburuz, hezkuntza inklusiboaren helburuetako bat ikasleak eta irakasleak dibertsitatearen aurrean eroso sentitzea da; eskuratutako datuak ondo aztertu eta gero, argi ikusten da ikastetxean bide onetik doazen arren, hainbat aldaketa burutu behar dituztela helburu hori lortzera ailegatzeko. Era berean, ikasle dibertsitatea arazo bat bezala ez ikustea beste helburuetako bat izan beharko zen baina irakasleen artean ehuneko handi batek ez duela horrela ikusten esan daiteke. Hori dela eta, ikuspegi hori duten hezitzaileak gutxiengoa izan arren, ikastetxean moldaketa batzuk burutu beharko dituzte erabateko inklusioa lortzeko.

Alde batetik, eskola inklusiboak oinarrizatzat hartzen dituen alderdiak honako hauek dira: ikasle guztiak pertsona gisa kontuan hartzea, pertsonak izaten, gauzak egiten, ikasten eta besteekin elkarbizitzen irakasten dien hezkuntza izatea eta harremanak errespetuz eta ekitatez sortzen laguntzen duen hezkuntza izatea (López-Vélez, 2018). Beraz, López-Vélezen hitzetan eskola inklusiboak izan behar dituen zimendu horiek aztertutako ikastetxean nahiko ondo betetzen direla esan daiteke; nahiz eta, oraindik aldaketa txiki batzuk egin behar diren.

Bestetik, Echeitak (2016) ebaluaziorako zehazten dituen dimentsioak kontuan hartzen baditugu honako hauek dira: presentzia, parte hartzea eta ikaskuntza. Ikastetxean orokorrean ebaluazioaren inguruan ikuspuntu ezberdin anitz daudela aitortu daiteke. Beraz, atal hau gehiago landu eta zehaztu beharko dutela baieztatu daiteke.

Azkenik, marko teorikoa atalean bost balore erabakigarri aipatzen dira kultura, politika eta praktika inklusiboak sortu ahal izateko (Booth eta Ainscow, 2015). Bost balore hauek berdintasuna, parte hartzea, dibertsitatearekiko errespetua, komunitatea eta jasangarritasuna dira eta esan beharra dago ikastetxean landu eta errespetatu egiten direla.

Beraz, laburbilduz, ikastetxean inklusioaren inguruan egiten ari diren lana oso ona da. Baina, bidearen hasierako fasean aurkitzen direnez, normala denez, hobetzeko eta zehazteko alderdi batzuk geratzen zaizkie.

5.2- Ikaskuntza-zerbitzua

Marko teorikoa atalean aipatu den moduan, ikaskuntza-zerbitzu bat garatzea ezaugarri eta fase ezberdinez egituratua dago. Beraz, gradu amaierako lan honetan aurkeztu egin den zerbitzuak ere ezaugarri eta fase horiek jarraitu dituela baieztatu daiteke.

Alde batetik, Gezuraga eta Herrerok (2017) aipatzen duten moduan, pedagogia honen helburuetako bat gizarteko eskakizunei erantzun egokia ematen duen hezkuntza lortzea da. Lan honetan helburu hau bete egin dela esan daiteke; izan ere, ikastetxe batek egindako eskakizun bati erantzuna ematen ahalegindu gara. Bestetik, Rubiok (2007) esaten duen moduan, testuingurua hobetzeko xedearekin lan egiten den bitartean ikasi ere egiten da eta ikerketa osoan zehar alderdi berri asko barneratzeko aukera izan dudala ziurta dezaket.

Gainera, Mendiak eta Morenok (2010) aitortzen duten bezalaxe, metodologia honen inguruan nabarmendu beharreko ideia nagusienetako bat gizarte-bazterketa prozesuez ohartzeko baliogarria dela da eta aurrera eramandako zerbitzuan horrela izan dela baieztatu daiteke. Azken finean, ikastetxean inklusioari buruz dagoen ideia orokorra eta talde bakoitzean ikuspuntuan aztertzeke aukera izan dugu egoera orokorraren berri izateko.

Marko teorikoan ikaskuntza-zerbitzu guztiek izan behar dituzten bost alderdi komun aipatzen dira (Rubio, 2007). Alderdi horiek ikaskuntza, zerbitzua, proiektua, parte

hartzea eta hausnarketa dira. Gure ikastetxean aurrera eramandako ikaskuntza-zerbitzuan bost hauek eman dira.

